



## Agur ditxosozko semaforoari

**Kontadores inguruko biribilgunearen lanak azken txanpan dira. Obrak urtarrilerako erabat amaitzea espero da. Dagoeneko, bidegurutzeko semaforoak kendu dituzte.**

**D**uela egun gutxi arte, Irun aldera —eta batez ere Bidebieta, Trintxer-

pe eta Pasai San Pedrorra— joan behar zuten ibilgailuek Kontadores pareko semaforoan gelditu behar izaten zuten ia beti. Miraria zen argi berdea topatzea. Egun, baina, gidariek ez dute semaforoarekin topo egingo. Uda hasieran Kontadores aurrean biribilgunea egiteko obrak hasi ziren. Duela pare bat aste, bidegurutzeko semaforoa kendu zuten. Biribilgunea urtarrilerako bukatuta egotea espero dute.

## Altza

# Emakume elkarteek ekintzak

**A**ltzako Uztai Belar, Rotetako Elkarte Berri eta Larratxoko Ostadar emakume elkarteek bi ekintza egingo dituzte ostegunean, hilak 25, Emakumeekiko Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren haritik. Goizean, Arria parkean, osasun etxearen inguruan eta

Larratxoko Josu Artetxe plazan begizta zuriak banatuko dituzte. Arratsaldeko 19:00etan, bestalde, hiru elkarteek deituta, kontzentrazioa egingo dute Altzako Plaza Gorrian. Elkarteek auzoko emakumezko eta gizonezko guztiei mobilizazioan parte hartzeko deia egin diete.



Argitalpen honen edizioan lankide:



**kutxa**  
gizarte ekintza

## Bidebieta

Dena dela, ibilgailuek biribilguneei dagozkien arauak bete behar dituzte inguru horretara gerturatutakoan.

### Bestelako lanak

Errepidean bertan ez ezik, ingurumarietan ere obra batzuk egiten ari dira. Dagoeneko Kontadoreseko espaloia bukatu dute, eta zabalik dago oinezkoentzat. Horretaz gain, alde horretako autobus geltokia lekuz aldatu dute, eta metro batzuk gorago jarri dute.

Datozen asteetan, lanak errepidearen beste aldean egingo dituzte. Batetik, espaloia berrituko dute, eta bestetik, autobus geltokia jarriko dute. Geltoki honek gaur egun Gaiztarroko sarreran dagoen geltokia ordezkatuko du. Kontadores aurreko geltokiaren parean jarriko dute, hain zuzen.



## Zulo handi samarra

Argazkian ikus daitekeen zulo honi Julio Urkixo kalean dago, osasun etxea baino 200 bat metro atzerago. Auto gidarrek gurpila sartu ohi dute zuloan. Zuloa arriskutsua da, bizikletan eta motorrean doazentzat bereziki. Gainera, zuloaren inguruan harri batzuk daude sakabanatuta.

## Lapurren bisita, berriz ere

Joan den astean, auzoan azken boladan izandako zenbait lapurreten berri eman genuen IRUTXULOri; Gipuzkoako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundearen gertatutako lapurreta zen horietako bat. Joan den asteburuan, Koordinakundearen egoitzan berriz ere lapurreta egin zuten. Egoera larria da, beraz.